



Lana / La obra

XX. mendeko gertaera handietan murgilduriko existentzia baten kontakizuna da *Huliganaren itzulera*; biografia arte bihurtzen asmatu duen idazle baten bidaia da, denboran eta espazioan, ametsean eta errealitatean, iraganean eta orainean barna. Egile/kontalari/protagonistari bere sorterrira itzultzeko aukera eskaintzen zaionean hasten da bidaia handi hau. Oroitzapenak oldean heltzen dira orduan: deportazioak etendako haurtzaroa, komunismoak gaztaroan sortutako suhartasuna eta ondorengo desilusioa, Ceaucescuren diktadurapeko bizitza, intelektualaren zailtasunak inguru itogarri batean, eta, azkenik, erbestea. Hamar urte behar izan zituen Maneak itzultzearen aukeran pentsatzen hasteko. Itzuli? Zertarako? Merezki du? Pertsona subertsiboa, sedizioilea, errebeldea da *huligana* errumanieraz (*huliganul*). Eta ez dago argi, huligana izan ondoren, posible ote den aberri itzultzea.

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Huliganaren itzulera**

Egilea / Autor: **Norman Manea**

Saila / Colección: Literatura Unibertsala, 170

ISBN / EAN: 978-84-9109-002-1

Salneurria / Precio: 19,90 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orrri kopurua / N° páginas: 480

Formatua / Formato: 13 x 19,5 cm



Egilea / El autor

Norman Manea Suceavan jaio zen, 1936an, Errumaniako ipar-ekialdeko eskualde batean, Bukovinan. Judua da, eta Bigarren Mundu Gerraren garaian, bost urte besterik ez zituela, Transnistriara deportatu zuten familia osoarekin; gero, Ceaucescuren komunismoaren garaian, beste kontzentrazio-esparru bat ezagutu zuen, zeharka orduko hartan, aita bisitatzera joanda. Ofizioz ingeniaria da Manea, baina hirurogeietan idazten hasi zen, eta izena eskuratzen Errumanian idazle gisa. 1986an, erregimen komunista ezin eramanik, erbestearen bidea hartu zuen. Aurrena beka bat eman zioten Mendebaldeko Berlinen, eta hurrengo urtean Ameriketako Estatu Batuetara jo zuen, New Yorkeko Bard Collegen irakaslelanak egitera.

Autobiografiak toki handia hartzen du Manearen lanean, eta sailka daitekeen neurrian, autobiografikoa da haren obra ezagunena eta sarituena ere, honako *Huliganaren itzulera* hau.

Itzultzailea / Traductor

Koro Navarrok (Donostia, 1955) ibilbide luzea du literatura-itzulpenean. Ingelesetik itzuli du gehienbat, eta hainbat sari jaso ditu, besteak beste 2003ko Euskadi Itzulpen Saria (I.B. Singer, *Zortzi kontakizun*) eta 2016ko Gasteizko Gazte Literaturako Itzulpen Saria (E.A. Poe, *Katu beltza eta izumenezko beste ipuin batzuk*). Azkenaldi honetako itzulpen-lan garrantzitsuena euskaratik gaztelaniara egin du: *Noticias de California* (Asun Garikano).